

**EUSKADIKO TOKIKO-SEKTORE PUBLIKOKO
AURREKONTU-ANALISIA**

2021

EUSKADIKO TOKIKO-SEKTORE PUBLIKOA 2021

Aurkibidea

1.	HITZAURREA	7
2.	DIRU-SARRERAK	11
2.1	ANALISI OROKORRA ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA	11
2.2	POPULAZIO-MAILAKA.....	18
3.	GASTUAK	23
3.1	ANALISI OROKORRA ETA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA	23
3.2	POPULAZIO-MAILAKA.....	26
4.	ZORPETZEA	31
5.	EKONOMIA ETA FINANTZA EGOERA	33
5.1	ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKAKOA	33
5.2	POPULAZIO-MAILAKA.....	34
6.	ZERGA ITUNDUETAN TOKI ERAKUNDEEN PARTE-HARTZEA.....	35
7.	ERANSKINA	39

Koadroen aurkibidea

1.1 Koadroa: Entitateen lurralde historikoen arabera eta sailkapena	8
1.2 Koadroa: Populazioaren banaketa udalerrien tamainaren arabera	8
1.3 Koadroa: Udalen sozietate publikoak. Jardueraren arabera eta lurralde historikoen arabera banaketa	9
1.4 Koadroa: Udalez gaindiko enpresak. Jardueraren arabera eta lurralde historikoen arabera banaketa	10
2.1 Koadroa: Tokiko-sektore publikoko diru-sarrera bateratuen bilakaera. EAE guztira... 11	
2.2 Koadroa: Diru-sarreraren sailkapen ekonomikoa 2021ean lurralde historikoen arabera, eta aurreko urtearekiko bilakaera.....	13
2.3 Koadroa: Diru-sarreraren iturri nagusiak kontzeptuen arabera. 2021.....	15
2.4 Koadroa: Biztanleko diru-sarrerak (Euro)	17
2.5 Koadroa: Diru-sarreraren sailkapen ekonomikoa: Bilakaera	19
2.6 Koadroa: Biztanleko eta populazio-mailen arabera presio fiskala (€/bizt.).....	20
2.7 Koadroa: Zerga-bilketaren eraginkortasuna (%)	21
2.8 Koadroa: Presio fiskal handiena duten udalak (€/bizt.).....	22
3.1 Koadroa: Tokiko-sektore publikoaren gastu bateratuen bilakaera. EAE guztira.....	23
3.2 Koadroa: Gastuen sailkapen ekonomikoa lurralde historikoen arabera 2021ean eta aurreko urtearekiko bilakaera.	25
3.3 Koadroa: Tokiko-sektore publikoaren biztanleria okupatua	25
3.4 Koadroa: Biztanleko gastuak (euro).....	26
3.5 Koadroa: Gastuen sailkapen ekonomikoa: Bilakaera	28
4.1 Koadroa: Zorpetze-indizea orokorra eta lurralde historikoen arabera (mila €)	31
4.2 Koadroa: Zorpetze-indizea populazio-mailaka (mila €).....	31
4.3 Koadroa: Zor bizi formalizatua orokorra eta lurralde historikoen arabera.....	32
4.4 Koadroa: Biztanleko zor bizi formalizatua, lurralde historikoen arabera eta populazio-mailaka (€)	32
5.1 Koadroa: Ekonomia eta finantza egoera lurralde historikoen arabera (mila €).....	33
5.2 Koadroa: Ekonomia eta finantza egoera populazio-mailaka (mila €).....	34
6.1 Koadroa: Zerga itunduetan toki erakundearen parte-hartzea	35
6.2 Koadroa: Zerga itunduetan toki erakundearen parte-hartzearen bilakaera (mila €)	36
6.3 Koadroa: Zerga itunduetako partaidetza biztanleko eta populazio-mailaka (€)	36

Grafikoen aurkibidea

2.1 Grafikoa: Tokiko-sektore publikoaren diru-sarrera bateratuen sailkapen ekonomikoa lurralde historikoen arabera. (%)	12
2.2 Grafikoa: Diru-sarreraren banaketa lurralde historikoen arabera. 2021 (%).....	12
2.3 Grafikoa: Udal-zergak guztizko diru-sarreretan	14
2.4 Grafikoa: Diru-sarrerak udal-zerga motaren arabera. (%).....	14
2.5 Grafikoa: Transferentzia arruntak guztizko diru-sarreretan.....	16
2.6 Grafikoa: Kapital transferentziak guztizko diru-sarreretan.....	16
2.7 Grafikoa: Diru-sarreraren sailkapen ekonomikoa populazio-mailaka. 2021	18
2.8 Grafikoa: Biztanleko diru-sarrerak (€)	20

3.1 Grafikoa: Gastuen sailkapen ekonomikoa, orokorra eta lurralde historikoen arabera: Egitura	24
3.2 Grafikoa: Gastuen banaketa lurralde historikoaren arabera. 2021 (%)	24
3.3 Grafikoa: Gastuen sailkapen ekonomikoa populazio-mailaka: Egitura	27
3.4 Grafikoa: Gastuak biztanleko (€)	29

1. HITZAURREA

Azterlan honetan tokiko-sektore publikoan sartu diren entitateak honako hauek dira:

- Udalak
- Udalen mendeko erakundeak
 - Erakunde autonomoak
 - Udal-sozietate publikoak
 - Toki-erakunde txikiak
- Udal-elkarteak
 - Kuadrillak
 - Mankomunitateak
 - Partzuergoak
 - Udalerri batek baino gehiagok osatutako sozietate publikoak edo udalez gaindiko sozietateak

Sozietate publikoak kontuan hartuko dira, udalen kapital sozialeko partaidetza % 50etik gorakoa bada.

2021. ekitaldiari dagozkion toki-entitateen aurrekontu-likidazioetako datuak aurkeztu dira, aitortutako eskubideak eta obligazioak. Datu horiek Eustatek bildu ditu “Sektore publikoaren aurrekontuen estatistika” eragiketan. Biztanleriari eta Barne Produktu Gordinari buruzko informazioa aipatutako erakunde berak argitaratu du.

2020. eta 2021. urteen artean, aztertu den toki-entitateen eta udalez gaindiko entitateen kopuruak ez du izan aldaketa esanguratsurik, nahiz eta 2013an hasitako beheranzko joerak bere horretan jarraitzen duen.

Urtetik urterako aldaketan jatorriak bi dira: alde batetik, entitateak sortu edo desagertu izana eta, bestetik, lortutako jasotze-tasa, handiagoa edo txikiagoa izatea. 2021ekoa 2020arekin alderatzen badugu, guztizko kopuruaren aldaketaren arrazoia honetan datza: 2 erakunde autonomoren, 3 udal-enpresen, udalerri-elkarte 1 eta udalaz gaindiko-enpresa 1 azterketatik irtetearen ondorio da. Irteerak 5 erakunde desagitearen eta 2 ez biltzearen ondorio dira.

1.1 Koadroa: Entitateen lurralde historikoen araberako eta sailkapena

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
UDALAK	51	112	88	251
TOKIKO ENTITATE TXIKIAK	334	4	2	340
ERAKUNDE AUTONOMOAK	7	44	20	71
UDAL-ENPRESAK	10	40	38	88
UDAL-ELKARTEAK	31	17	25	73
UDAL-ELKARTEEN ENPRESAK	0	3	15	18
GUZTIRA	433	220	188	841

Analisia lurralde historikoen arabera eta populazio-mailaka egin da. Horretarako, udalak 5 multzotan banatu dira.

1.2 Koadroa: Populazioaren banaketa udalerrien tamainaren arabera

	1. Pop.-maila <=1000		2. Pop.-maila 1.001-5.000		3. Pop.-maila 5.001-20.000		4. Pop.-maila >20.000 (Hirib. ezik)		5. Pop.-maila Hiriburuak		GUZTIRA
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	
ARABA											
UDALERRIAK	28	%54,9	19	%37,2	3	%5,9			1	%2,0	51
POPULAZIOA	12.823	%3,9	36.129	%10,9	33.634	%10,2			248.106	%75,0	330.692
BIZKAIA											
UDALERRIAK	37	%33,0	40	%35,7	24	%19,7	10	%8,9	1	%0,9	112
POPULAZIOA	18.422	%1,6	90.361	%7,9	243.280	%21,4	446.691	%39,2	340.455	%29,9	1.139.209
GIPUZKOA											
UDALERRIAK	32	%36,4	22	%25,0	27	%30,7	6	%6,8	1	%1,1	88
POPULAZIOA	12.564	%1,8	48.637	%6,8	281.986	%39,3	191.660	%26,7	181.769	%25,4	716.616
GUZTIRA											
UDALERRIAK	97	%38,6	81	%32,3	54	%21,5	16	%6,4	3	%1,2	251
POPULAZIOA	43.809	%2,0	175.127	%8,0	558.900	%25,6	638.351	%29,2	770.330	%35,2	2.186.517

ITURRIA: EUSTAT. Biztanleen Udal Erroldaren Estatistika

Lurralde-berezitasunak daude populazioaren banaketari dagokionez: Araban, populazioaren % 75 hiriburuan bizi da; Bizkaian, aldiz, populazioaren % 29,9a, baina 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerriak kontuan hartzen baditugu, % 69,1ra iristen da; azkenik, Gipuzkoan, hiriburuan % 25,4 bizi da eta, 20.000 biztanle baino gehiagokoak gehituta, % 52,1ra heltzen da.

Adierazi behar da 2021ean udalerri bitan populazio-maila aldaketa gertatu dela, Maruri-Jatabe 1. populazio mailatik 2. era pasatu da eta Urduliz 2. populazio-mailatik 3.era. Beraz, bi ekitaldietako urte arteko konparaketa egiteko 2020. ekitaldiko datuak berregin dira aldaketa hau kontutan izanda.

Azkenik, adierazi behar da aurreko ekitaldiko datuak berriro lantzen direla, azterlanaren urtean eskuragarri dagoen informazioaren arabera.

Lurralde historikoen arabera egiten den analisiak barne hartzen ditu toki-entitateen eta udalez gaindiko entitateen datuak. Hala ere, udalaz gaindiko entitateen datuak ezin direnez zehatz-mehatz egotzi udalerrien artean, biztanleria-mailaka emandako datuak udal-eremuko erakundeei buruzkoak baino ez dira¹.

Datuen azterketa egokia egiteko, zerbitzu batzuen kudeaketan dauden berezitasunak kontuan izan behar ditugu (zabor bilketa, ur hornidura, garraio publikoa...). Horrela, Vitoria-Gasteizen, Amvisa da ur hornidura zerbitzuaren arduraduna. Udal entitatea da eta, horrela, bere datuak udalerrien datuekin multzokatu dira eta populazio-mailaka egiten den azterketaren barnean dago. Bilbon eta Donostian zerbitzu hau ematen dutenak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa eta Añarbeko Urak dira, hurrenez hurren. Horiek udalez gaindiko enpresak dira eta lurraldeen arabera egiten den azterketaren barnean daude.

1.3 Koadroa: Udalen sozietate publikoak. Jardueraren araberako sailkapena eta lurralde historikoaren araberako banaketa

JARDUERA POPULAZIO- MAILA	ARABA						BIZKAIA						GIPUZKOA						EAE						
	1	2	3	4	5	T	1	2	3	4	5	T	1	2	3	4	5	T	1	2	3	4	5	T	
Turismoa															1		1	2				1		1	2
Ura, zaborra eta garbiketa					1	1			1			1				1		1				1	1	1	3
Hiri-garraioa					1	1					1	1					1	1						3	3
Kirol-instalazioak										2	1	3			1		1	2				1	2	2	5
Enplegu-sustapena										3	2	5											3	2	5
Kultura										1	2	3			1		3	4				1	1	5	7
Energia		1				1							1		5			6	1		1	5			7
Garapen-agentziak			1			1		1	2		1	4			1	1	1	3		1	4	1	2		8
Beste batzuk		1				1		2	1	1	3	7				2	2	4		3	1	3	5		12
Lurra, hirig eta etxebi.	1	1	1		2	5	6	5	4	1		16	2	10	2		1	15	1	9	16	6	4		36
GUZTIRA	1	3	2	4	10	10	9	12	10	9	40	40	1	2	19	6	10	38	2	14	33	16	23	88	88

Datuetan jasotzen diren udal-sozietateen % 45,4 Bizkaian daude, % 43,2 Gipuzkoan eta % 11,4 Araban. Halaber, nabarmendu behar da aztertutako udal enpresen % 43 lurra, hirigintza eta etxebizitza arlokoa dela.

¹ Erakunde guztien datuak dituzten koadroak urdin kolorekoak dira, eta udal erakundeei dagozkienak, berriz, berde kolorekoak dira.

1.4 Koadroa: Udalez gaindiko enpresak. Jardueraren arabera sailkapena eta lurralde historikoaren arabera banaketa

JARDUERA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
HILTEGIAK	0	0	1	1
TURISMOA	0	0	1	1
LURRA, HIRIG., ETXEBI.	0	1	2	3
URA, ZABORRA, GARBIKETA	0	0	6	7
GARAPEN-AGENTZIAK	0	2	5	7
GUZTIRA	0	3	15	18

2021ean jasotako udalez gaindiko enpresen % 83,3a Gipuzkoan daude eta gainerako % 16,7a Bizkaian.

2. DIRU-SARRERAK

2.1 ANALISI OROKORRA ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA

Diru-sarreren bilakaerari eta ezaugarriari buruz hauxe nabarmendu behar dugu:


- 2021eko ekitaldian, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren berreskurapenak markatuta, tokiko-sektore publikoko diru-sarrera bateratuen zenbatekoa 3.966 miloi eurokoa izan da, hau da, 2020an izandakoa baino % 9,1 gehiago (331 milioi). Igoera orokorra da, Administrazio erakunde autonomoetan eta mankomunitate, partzuergo eta kuadrilletan izan ezik. Udalek (303 milioi), udal-sozietateek (25 milioi) izan dute gorakadarik handiena.
- Diru-sarreren zifra orokor bateratuaren urte arteko bilakaera hiru lurralde historikoetan igo egin da: Araban (% 10,6) eta Gipuzkoan (% 10,2) tasa handiagoa izan da Bizkaian (% 7,8) baino.
- Toki-erakunde txikien diru-sarreren gehikuntza inbertsio errealak besterentzeen, kapital-transferentzien eta finantza-pasiboen gorakadak eragin du.

2.1 Koadroa: Tokiko-sektore publikoko diru-sarrera bateratuen bilakaera. EAE guztira.


	2020		2021		Δ%
	Mila €	%	Mila €	%	
Udalak eta beren mendeko entitateak					
Tokiko entitate txikiak	22.678	0,6	28.760	0,7	26,8
Adm. erakunde autonomoak	72.607	2,0	70.230	1,8	-3,3
Sozietate publikoak	144.868	4,0	169.787	4,3	17,2
Udalak	3.050.911	83,9	3.354.622	84,6	10,0
GUZTIZKO PARTZIALA	3.291.064	90,5	3.623.399	91,4	10,1
Udalez gaindiko entitateak					
Mankom., partzuergoak, kuadrillak...	261.667	7,2	255.112	6,4	-2,5
Udalez gaindiko enpresak	82.007	2,3	87.347	2,2	6,5
GUZTIZKO PARTZIALA	343.674	9,5	342.459	8,6	-0,4
DIRU-SARRERAK BATERATUA GUZTIRA	3.634.738		3.965.858		9,1

- Tokiko-sektore publikoko diru-sarreraren % 50,9 transferentziak dira; horietatik % 94,3 transferentzia arruntak dira, eta gainerako % 5,7a kapitalekoak. Zerga bidezko diru sarrerak % 43,1 dira, eta zorpetzea guztizkoaren % 1,7 da. Hiru lurraldeetan transferentzien ondoriozko diru-sarrerak dira garrantzitsuenak

2.1 Grafikoa: Tokiko-sektore publikoaren diru-sarrera bateratuen sailkapen ekonomikoa lurralde historikoaren arabera. (%)



2.2 Grafikoa: Diru-sarreraren banaketa lurralde historikoaren arabera. 2021 (%)




2.2 Koadroa: Diru-sarrerren sailkapen ekonomikoa 2021ean lurralde historikoaren arabera, eta aurreko urtearekiko bilakaera

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Mila €	Δ % 21/20	Mila €	Δ % 21/20	Mila €	Δ % 21/20	Mila €	Δ % 21/20
Zuzeneko zergak	119.554	-1,9	337.323	0,4	248.796	0,5	705.673	0,1
Zeharkako zergak	15.404	22,9	39.649	37,0	21.298	8,6	76.351	25,0
Tasak eta best. zergak	121.878	4,6	424.378	6,9	380.726	6,8	926.982	6,5
Zerga -bidezko diru-sarrerak	256.835	2,3	801.350	5,2	650.821	4,4	1.709.006	4,4
Transferentzia arruntak	270.174	11,4	965.759	4,1	667.277	18,3	1.903.210	9,7
Kapital transferentziak	45.695	49,8	41.016	14,0	27.340	37,4	114.050	32,0
Transferentziak	315.869	15,7	1.006.774	4,5	694.617	18,9	2.017.260	10,8
Ondare sarrerak	9.684	-6,1	29.683	20,9	12.594	4,8	51.960	10,8
Inb. errealen besterentzea	14.333	56,3	33.215	94,9	61.995	73,1	109.544	76,6
Finantza-aktiboak	1.867	270,5	5.726	434,7	2.024	170,8	9.617	314,2
Bestelako diru-sarrerak	25.884	29,5	68.624	60,8	76.613	57,7	171.121	53,8
GUZT. ZORPETZERIK GABE	598.588	10,0	1.876.749	6,1	1.422.051	13,2	3.897.387	9,2
Zorpetzea	16.374	37,2	35.035	576,8	17.061	-65,3	68.471	3,3
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	614.962	10,6	1.911.784	7,8	1.439.112	10,2	3.965.858	9,1


- Zerga-sarrerak batez beste % 4,4ko gorakada erakusten dute. Talde horren barruan, zuzeneko zergak mantentzen diren bitartean, zeharkakoek igoera nabarmena izan dute (% 25) eta tasek % 6,5eko hazkundera izan dute. Lurraldeen arabera, igoera handiagoa izan da Bizkaian eta Gipuzkoan (% 5,2 eta % 4,4) Araban baino (% 2,3).
- Transferentzia arruntak gorakada Gipuzkoan % 18,3 izan da, Araban % 11,4 eta Bizkaian % 4,1. Kapital transferentzien kasuan, Arabak (% 49,8) eta Gipuzkoak (% 37,4), Bizkaiak (% 14,0) baino hazkunde handiagoa izan dute.
- Zorpetze bidezko diru-sarrerak, oro har, % 3,3 hazi dira. Esan behar da, lurraldearen arabera joera ezberdina dutela, Bizkaian % 576,8 hazi diren bitartean Gipuzkoan % 65,3 jaitsi direla.
- Azkenik, bestelako diru-sarreraren epigrafean urtetik urterako aldaketa handiak ikusten dira, hura osatzen duten kapituluaren ezegonkortasuna dela-eta. Azpimarratzekoa da finantza aktiboaren igoera (% 314,2).
- Udal-zergak kontsolidatutako guztizkoaren % 19,7 dira, aurreko urtean baino 1,4 puntu handiagoa. Zuzeneko zergak zerga guztien % 92 inguru dira,

eta OHZ da udalei baliabide gehien ematen dizkien zerga (udal-zerga guztien % 52,2).

2.3 Grafikoa: Udal-zergak guztizko diru-sarreretan



2.4 Grafikoa: Diru-sarrerak udal-zerga motaren arabera. (%)




- Diru-sarrereren kontzentrazioa zertxobait gutxitu da hiru kontzeptu garrantzitsuenetan: foru aldundietako transferentzia arruntak (% 43,4), tasak (% 14,9) eta OHZ (% 10,3); kopuru osoaren % 69 inguru.

2.3 Koadroa: Diru-sarrereren iturri nagusiak kontzeptuen arabera. 2021

		Mila €	%
420	Foru Aldundiarenak eta bestelako foru erakundeenak	1.723.084	43,4
31	Toki eskumeneko zerbitzuak eskaini edo jarduerak egiteagatiko tasak	591.343	14,9
112	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	408.051	10,3
41	Euskal Autonomia Erkidegokoak	153.137	3,9
113	Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga	137.361	3,5
130	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	105.960	2,7
30	Salmentak	94.032	2,4
32	Tokiko herri jabariaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak	81.588	2,1
282	Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	76.337	1,9
71	Euskal Autonomia Erkidegokoak	58.652	1,5
93	Jasotako epe luzerako maileguak	55.776	1,4
114	Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga	54.304	1,4
720	Foru Aldundiarenak eta bestelako foru enteenak	45.978	1,2
399	Beste hainbat sarrera	44.723	1,1
65	Hirigintzako jardueretatik ondorioztatutako sarrerak	41.005	1,0
391	Isunak	40.078	1,0
34	Prezio publikoak	38.036	1,0
	GAINERAKOAK	216.412	5,5
	DIRU-SARRERAK GUZTIRA	3.965.858	100,0


- Transferentzia arruntak diru-sarrera guztien % 48 dira, eta gehienak foru-aldundietatik datoz (% 91). Kapital-transferentziek gora egin dute pixka bat, eta 2021ko diru-sarrera guztien % 2,9 baino ez dira: % 51,4 Eusko Jaurlaritzatik datoz, % 40,7 foru-aldundietatik eta % 4,1 Estatutik (4,6 M€).

2.5 Grafikoa: Transferentzia arruntak guztizko diru-sarreretan



- 1. Bestelako diru-sarrerak
- 2. Transferentzia arruntak
- 2.a. Estatutik
- 2.b. Euskal Autonomia Erkidegotik
- 2.c. Foru Aldunditik
- 2.d. Gainerako transferentziak

2.6 Grafikoa: Kapital transferentziak guztizko diru-sarreretan



- 1. Bestelako diru-sarrerak
- 2. Kapital transferentziak
- 2.a. Estatutik
- 2.b. Euskal Autonomia Erkidegotik
- 2.c. Foru Aldunditik
- 2.d. Gainerako transferentziak

Azkenik, tokiko-sektore publikoaren biztanleko diru-sarreraren analisiak hau erakusten du:

- EAEko biztanleko diru-sarrerak 157 euro igo dira batez beste, 2020. urtearekin alderatuta, eta 1.814 eurokoak dira. Horietatik, 31 euro bakarrik dagozkio zorpetzeari.
- Gipuzkoako biztanleko diru-sarrerak (2.008 €/bizt.) Arabakoak (1.860 €/bizt.) edo Bizkaikoak (1.678 €/bizt.) baino askoz handiagoak dira, batez ere zerga bidezko diru-sarrerengatik (908 euro biztanleko Gipuzkoan, eta 777 eta 703 euro biztanleko Araban eta Bizkaian, hurrenez hurren).
- Bestelako diru-sarreretan eta transferentzietan Gipuzkoa buruan dago; Araba, berriz, lehen postuan dago zorpetzetik datozen diru-sarreretan.
- 2020. urtearekin alderatuz, biztanleko diru-sarrerek gora egin dute hiru lurraldeetan: Araban (% 10,4), Bizkaian (% 8,3) eta Gipuzkoan (% 10,6).

2.4 Koadroa: Biztanleko diru-sarrerak (Euro)


	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
Zerga bidezko diru-sarrerak	777	703	908	782
Transferentziak	955	884	969	923
Bestelako diru-sarrerak	78	60	107	78
Zorpetzerik gabe diru-sarrerak	1.810	1.647	1.984	1.782
Zorpetzea	50	31	24	31
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	1.860	1.678	2.008	1.814

2.2 POPULAZIO-MAILAKA

Populazio-mailak kontuan hartuta, hau ikusten da:

- Oro har, populazioa handitzen den heinean, zerga-bidezko diru-sarreraren protagonismoa indartzen da. Horrela, pisu erlatibo minimoa, % 29,5, udalerrri txikienetan gertatu da, eta maximoa, % 41,0, hiriburuetan.
- Udalerrri txikienetan transferentziak garrantzitsuagoak dira, batez ere, kapital transferentzien tamainagatik.
- Zorpetzearen pisu erlatiboa hiriburuetakako minimoaren, %1,3; eta udalerrri txikiaren maximoaren, %2,6, tartean dago.

2.7 Grafikoa: Diru-sarreraren sailkapen ekonomikoa populazio-mailaka. 2021



- Zorpetzerik gabeko diru-sarrerak bost populazio-mailetan igo dira, hiriburuetan gehiago. Guztizko diru-sarrerek ere gora egin dute populazio-maila guztietan, baina zorpetzearen jaitsierak hiriburuen guztizkoaren jaitsiera moteldu du. Aipatu beharra dago laugarren populazio-mailan zorpetzeak izan duen hazkunde nabarmena.


2.5 Koadroa: Diru-sarreren sailkapen ekonomikoa: Bilakaera

	<=1.000		1.001-5.000		5.001-20.000		>20.000 Hirib. izan ezik		Hiriburuak	
	mila€	Δ %	mila€	Δ %	mila€	Δ %	mila€	Δ %	mila€	Δ %
Zerga-bidezko diru-sarrerak	26.124	6,3	109.994	7,2	327.221	6,7	341.364	2,1	615.343	5,5
Transferentziak	54.456	5,6	153.619	8,2	471.728	13,4	528.575	9,5	771.087	13,6
Bestelako diru-sarrerak	5.733	27,2	9.081	4,4	23.345	15,9	28.461	62,1	93.737	71,2
Zorpetzerik gabeko diru-sarrerak	86.313	7,0	272.694	7,6	822.295	10,7	898.400	7,6	1.480.167	12,4
Zorpetzea	2.350	302,4	3.875	331,0	19.340	191,4	21.705	20840,0	20.126	-64,9
GUZTIRA	88.664	9,1	276.568	8,8	841.634	12,3	920.106	10,2	1.500.293	9,2

Biztanleko diru-sarrerei dagokionez, populazio-mailaka, hau ikusten da:

- Biztanleko diru-sarrerak, hiriburuek osatzen duten populazio-mailan izan ezik, jaitsi egiten dira biztanleria hazten den heinean. Kontuan izan behar da udalerrri txikienek dituztela zifra handienak, finantzaketarako foru-funtsen transferentzia arruntetan gutxieneko zenbatekoak finkatu direlako eta udalerrri horietan kapital-transferentziek garrantzi handia dutelako.
- Hiriburuak bigarren postuan daude biztanleko diru-sarreren sailkapenean, zerga-gaitasun handiagoa dutelako eta hiriburuek foru funtsetan tratamendu berezia dutelako.
- EAEko biztanleko batez besteko diru-sarrera 1.658 eurokoa izan da 2021ean, 2020koa baino 156 euro handiagoa. Batez bestekoaren azpitik daude erdiko hiru populazio mailetako udalerrriak, batez ere 20.000 biztanletik gorakoak, hiriburuak alde batera utzita (1.441 €/bizt.). Talde horretan biztanleko zerga-sarrerarik txikiak daude.
- Hiriburuen batezbestekoak hauek dira: 1.843 €/bizt. Vitoria-Gasteizen, 1.805 €/bizt. Bilbon eta 2.356 €/bizt. Donostian.

2.8 Grafikoa: Biztanleko diru-sarrerak (€)



2.6 Koadroa: Biztanleko eta populazio-mailen araberako presio fiskala² (€/bizt.)

POPULAZIO-MAILA	OHZ	TMIZ	HLBGZ	JEZ	EIOZ	GUZTIRA
1. <=1.000	204	72	8	44	48	377
2. 1.001-5.000	211	73	19	74	52	428
3. 5.001-20.000	179	70	19	47	40	355
4. >20.000 (Hiriburuak izan ezik)	182	58	16	35	25	317
5. Hiriburuak	190	59	38	55	35	376
VITORIA - GASTEIZ	182	62	43	65	50	402
BILBAO	160	55	19	44	27	305
DONOSTIA	254	62	67	62	28	474
EAE	187	63	25	48	35	358

² Presio fiskala: zuzeneko eta zeharkako zergen batuketara (tasak ez dira sartu, kontabilizazioarako irizpideak ezberdinak izaten direlako).

Udal-zergak kontuan hartuta, hau ikusten da:

- *Per capita* presio fiskal orokorrak % 2,4 egin du gora 2020. urtearekin alderatuta, biztanleko 358 euro batezbesteko izan da 2021ean. OHZri dagokion ratioa (187 €/bizt.) nabarmentzen da gainerakoen gaineratik, eta ikusten da hiriburuak eta bi populazio maila txikienetan dauden udalerrriak direla zerga honetan presio fiskal altuena dutenak.
- 2021ean, behera egin dute TMIZ-tik (-% 0,1) eta, batez ere, HLBGZtik (-% 12,0) etorritako biztanle bakoitzeko diru-sarrerek. Gainerako zergek aurrera egin dute, OHZren hazkundera nabarmenduz (% 25,4).
- Biztanle bakoitzeko presio fiskal txikiena hiriburuak ez diren 20.000 biztanletik gorako udalerriei dagokie, eta altuena, 1.001-5.000 biztanle tarteko populazio-mailakoei.
- Hiriburuen artean, Bilboko datua nabarmentzen da (305 €/bizt.), biztanleko presio fiskala Gasteizkoa (402 €/bizt.) eta Donostiakoa (474 €/bizt.) baino askoz txikiagoa baita.

2.7 Koadroa: Zerga-bilketaren eraginkortasuna (%)

POPULAZIO-MAILA	OHZ	TMIZ	HLBGZ	JEZ	EIOZ	GUZTIRA
1. <=1000	97,7	93,6	97,4	97,3	89,8	95,9
2. 1.001-5.000	97,4	89,9	80,2	96,4	78,0	92,8
3. 5.001-20.000	97,3	92,1	82,4	88,2	78,7	92,2
4. >20.000 (Hirib. izan ezik)	96,4	90,1	84,9	89,7	85,2	93,0
5. Hiriburuak	96,0	92,1	89,3	52,0	79,8	86,8
VITORIA - GASTEIZ	93,5	95,0	93,1	17,1	82,2	80,0
BILBAO	96,9	88,9	93,9	67,3	76,0	89,2
DONOSTIA	97,5	93,3	83,6	81,4	81,0	91,9
EAE	96,6	91,4	86,6	75,3	80,7	90,6

Bilketaren eraginkortasunari erreparatuz gero (diru-bilketa likidoa / aitorituriko eskubide garbiak), honako hauek nabarmendu behar dira:

- Eraginkortasun globala 2,1 puntu igo da 2021ean, eta % 90,6koa da. Populazio-mailen arabera, diru-bilketaren eraginkortasuna hiriburuen % 86,8 eta 1.000 biztanletik beherako udalerrien % 95,9 artean dago.
- Emaizarik onena OHZri dagokio, % 96,6. Balio horren azpitik daude 4. populazio maila eta hiriburuak.

- Aurreko urtearekin alderatuta, udal-zerga guztien bilketa-eraginkortasunaren adierazleak igo egin dira, JEZ izan ezik.
- Hiriburuen artean, daturik onena Donostiak izan du (% 91,9), Vitoria-Gasteizek (% 80,0) baino askoz handiagoa; datu hori JEZren diru-bilketaren eraginkortasun txikiak markatu du³.

2.8 Koadroa: Presio fiskal⁴ handiena duten udalak (€/bizt.)

	POP.- MAILA	LH	OHZ	TMIZ	HLBGZ	JEZ	EIOZ	GUZTIRA
ZIERBENA	2	BIZKAIA	1.180	75	-	1.982	613	3.850
ZAMUDIO	2	BIZKAIA	442	121	84	803	177	1.627
ARAKALDO	1	BIZKAIA	1.159	55	4	-7	296	1.507
LOIU	2	BIZKAIA	958	128	36	34	53	1.208
ADUNA	1	GIPUZKOA	476	161	144	197	97	1.075
KUARTANGO	1	ARABA	885	53	-	89	48	1.074
LAGUARDIA	2	ARABA	416	69	143	119	171	918
IZURTZA	1	BIZKAIA	469	93	-	174	113	849
DERIO	3	BIZKAIA	259	69	2	175	304	809
DONEMILIAGA	1	ARABA	388	74	-	290	55	806
EAE			187	63	25	48	35	358

Azkenik, presio fiskal handiena duten udalen rankingari dagokionez:

- Zerrendako buru diren udalerriek populazio txikia dute. Udalerri horiek rankingean sartzearen arrazoia da haietan azpiegitura garrantzitsuak (portua, teknologia parkea) eta/edo enpresa handiak daudela.
- Hala, Zierbena lehenengo lekuan dago, bertan Bilboko portua eta Petronor, Bahía de Bizkaia Electricidad edo Bahía de Bizkaia Gas bezalako enpresa handiak daudelako.

³ Azterketan diru-sarrera eta gastu arruntak bakarrik aztertzen dira, hondarrak kontuan hartu gabe.

⁴ Presio fiskala: zuzeneko eta zeharkako zergen batuketa.

3. GASTUAK

3.1 ANALISI OROKORRA ETA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA

Tokiko-sektore publikoko gastu kontsolidatuen bilakaerari eta ezaugarriei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira:

- 2021ean egindako gastu bateratuaren zenbatekoa 3.797 milioi eurokoa izan da, 2020an baino % 6,1 gehiago. Kopuru hori Euskal Autonomia Erkidegoko urteko BPGd-aren % 4,9 da.
- Taldeka, gorakada handiena tokiko entitate txikietan eta mankomunitateek, partzuergoek eta koadrilek osatutako taldean izan da. Gastua udal-erakunde autonomoetan eta udalez gaindiko sozietate publikoetan jaitsi egin da


3.1 Koadroa: Tokiko-sektore publikoaren gastu bateratuen bilakaera. EAE guztira

EAE	2020		2021		Δ %
	Mila €	%	Mila €	%	
Udalak eta beren mendeko entitateak					
Tokiko entitate txikiak	22.883	0,6	30.284	0,8	32,3
Adm. erakunde autonomoak	172.680	4,8	169.188	4,5	-2,0
Sozietate publikoak	329.647	9,2	344.267	9,1	4,4
Udalak	2.635.302	73,6	2.797.811	73,7	6,2
GUZTIZKO PARTZIALA	3.160.513	88,3	3.341.549	88,0	5,7
Udalez gaindiko entitateak					
Mankom., partzuergoak, kuadrillak...	304.190	8,5	343.009	9,0	12,8
Udalez gaindiko enpresak	115.257	3,2	112.232	3,0	-2,6
GUZTIZKO PARTZIALA	419.446	11,7	455.241	12,0	8,5
GASTU BATERATUAK, GUZTIRA	3.579.959		3.796.790		6,1


- Sailkapen ekonomikoaren arabera, funtzionamendu-gastuak % 77,0 dira. Talde horren barruan, langile-gastuak % 35,2 dira, eta ondasun arrunten eta zerbitzuen gastua, berriz, % 41,8.
- Inbertsioaren pisua 0,1 puntu jaitsi da eta bateratutako guztizkoaren % 12,3 izan da.
- Lurraldearen arabera, finantza-kargak Gipuzkoan (% 5,5) pisu handiagoa du, Arabakoarekin (% 3,3) eta Bizkaikoarekin (% 2,0) alderatuta. Arabako langile-gastuen pisu erlatiboa (% 38,2) beste bi lurraldeetako baino

handiagoa da, ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuen aldiz baxuagoa(%36,9).

3.1 Grafikoa: Gastuen sailkapen ekonomikoa, orokorra eta lurralde historikoen arabera: Egitura



3.2 Grafikoa: Gastuen banaketa lurralde historikoaren arabera. 2021 (%)



- 2020ko datuekin alderatuta, gastuak kapitulu guztietan hazi dira transferentzietan izan ezik, transferentzia arruntak % 4,7 jaitsi dira eta kapital transferentziak % 4,3.
- Finantza karga da ehunekotan gehien hazten dena (% 45,9), finantza pasiboen igoeratik.

- Funtzionamendu-gastuak % 5,3 igo dira, batez ere, ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuen gorakadak (% 7,9)eraginda.
- Inbertsio errealak % 4,8 hazi dira.
- Tokiko-sektorearen gastuek hiru lurraldeetan gora egin dute: Araban % 5,7, Bizkaian % 7,8 eta Gipuzkoan % 4,0.

3.2 Koadroa: Gastuen sailkapen ekonomikoa lurralde historikoen arabera 2021ean eta aurreko urtearekiko bilakaera.

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Mila €	Δ % 21/20	Mila €	Δ % 21/20	Mila €	Δ % 21/20	Mila €	Δ % 21/20
Pertsonal gastuak	222.579	1,2	651.888	1,9	462.237	3,7	1.336.704	2,4
Gastuak ondasun arrunt eta zerb.	214.726	6,1	809.042	8,5	564.048	7,7	1.587.816	7,9
Funtzionamendu-gastuak	437.305	3,6	1.460.930	5,5	1.026.285	5,8	2.924.520	5,3
Inbertsio errealak	87.041	4,5	196.948	13,5	182.650	-3,1	466.639	4,8
Kapital transferentziak	2.801	15,6	7.043	-11,3	7.238	-3,5	17.083	-4,3
Inbertsio-gastuak	89.843	4,8	203.991	12,4	189.888	-3,1	483.722	4,4
Transferentzia arruntak	32.868	7,3	130.673	-3,5	68.632	-11,3	232.173	-4,7
Finantza aktiboak	3.102	4684,7	21.198	898,3	498	25,6	24.799	859,3
Bestelako gastuak	35.970	17,1	151.871	10,4	69.130	-11,1	256.972	4,4
FIN. KARGARIK GABEKO GASTUAK	563.118	4,5	1.816.793	6,6	1.285.303	3,4	3.665.214	5,1
Finantza gastuak	1.433	12,0	1.700	33,1	11.976	4,5	15.109	7,8
Finantza pasiboak	17.740	60,0	35.485	138,8	63.242	17,4	116.468	45,9
Finantza-karga GASTUAK, GUZTIRA	19.173	55,0	37.184	130,4	75.219	15,1	131.577	40,2
	582.291	5,7	1.853.977	7,8	1.360.522	4,0	3.796.790	6,1

- Tokiko sektore publikoan 25.715 pertsonak lan egin dute 2021ean, EAEko biztanleria okupatuaren urteko batezbestekoaren % 2,7. 2020an langileen zenbatekoa 25.433koa izan zen.

3.3 Koadroa: Tokiko-sektore publikoaren biztanleria okupatua

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
Tokiko-sektore publikoko langileak (1)	4.777	11.851	9.087	25.715
Urteko batez besteko langileak, LLHH arabera (2)	144.200	481.100	315.100	940.400
EHUNEKOAK (1) / (2)	3,3%	2,5%	2,9%	2,7%

Azkenik, tokiko-sektore publikoko biztanle bakoitzeko gastuen azterketak agerian uzten du honako hau:

- Biztanleko gastuek, guztira, 104 € egin dute gora, eta batezbestekoa 1.736 eurotan dago; horietatik, 1.338 funtzionamendu-gastuei dagozkie. Igoera hiru lurraldeetan izan da: 92 euro Araban, 124 Bizkaian eta 78 Gipuzkoan. Gipuzkoa da, oraindik ere, batez besteko altuena duen lurraldea (1.899 €/bizt.), Arabaren (1.761 €/bizt.) eta Bizkaiaren (1.627 €/bizt.) aurretik.
- Lurraldeetan gertatu diren aldaketen ondorioz, lurraldeen arteko tarteak gutxitu egin da aurreko urtearekin alderatuta, eta 2021ean 271€ izan da, eta 2020an 317 euro.
- Arabak du biztanle bakoitzeko inbertsio-gasturik handiena (272 €/bizt.), ondoren Gipuzkoak (265 €/bizt.) eta Bizkaiak (179 €/bizt.). Funtzionamendu-gastuei dagokienez, ratorik txikiena Bizkaiari dagokio (1.282 €/bizt.) eta handiena Gipuzkoari (1.432 €/bizt.). Finantza-kargak gora egiten du hiru lurraldeetan.

3.4 Koadroa: Biztanleko gastuak (euro)


	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
Funtzionamendu-gastuak	1.322	1.282	1.432	1.338
Inbertsio-gastuak	272	179	265	221
Bestelako gastuak	109	133	96	118
FIN. KARGARIK GABEKO GASTUAK	1.703	1.595	1.794	1.676
Finantza-karga	58	33	105	60
GASTUAK, GUZTIRA	1.761	1.627	1.899	1.736

3.2 POPULAZIO-MAILAKA

Populazio-mailak kontuan hartuta, EAEko tokiko-sektorearen gastu kontsolidatuaren egiturak honako hau erakusten du:

- Funtzionamendu-gastuek protagonismo handiagoa hartzen dute biztanleriak gora egin ahala, eta inbertsioek garrantzi erlatibo handiagoa, herri txikiagoetan.
- Funtzionamendu-gastuak apur bat jaitsi dira, eta EAEko batez bestekoa % 74,7 da. 2021ean, finantza karga, puntu bat hazten da, % 3,3 da.

3.3 Grafikoa: Gastuen sailkapen ekonomikoa populazio-mailaka: Egitura



- Guztizko gastuek gora egin dute bost populazio-mailatan, igoerak % 1,5 (4. populazioa maila) eta % 8,4 (hiriburuak) artean daude. Finantza-karga alde batera utzita, gastuek gora egin dute 2020koekin alderatuta, 4. populazio mailan izan ezik.
- Funtzionamendu-gastuek % 5,1 egin dute gora, ondasun eta zerbitzuen erosketak (% 7,8) eta pertsonal gastuek (% 2,3) eraginda.
- Finantza-karga % 50,8 hazi da globalean. Populazio-maila guztietan igo da, baina indartsuago 4. populazio-mailan eta hiriburuetan. Osagaiei dagokienez, finantza-gastuak % 24,1 hazi dira, eta finantza-pasiboetako gastuak, % 52,7.
- Inbertsio-gastuek, batez beste, % 5,9 egin dute gora. Hazkundera izan dute populazio-maila guztietan, 4. populazio mailan izan ezik, % 9,6ko beherakada izan duelako. Osagaien arabera, inbertsio errealak % 6,6ko igoera dute eta kapital-transferentziek aldiz % 7,6ko murrizketa izan dute.

3.5 Koadroa: Gastuen sailkapen ekonomikoa: Bilakaera


	<=1.000		1.001-5.000		5.001-20.000		>20.000 hirib. Ezik		Hiriburuak	
	mila €	Δ %	mila €	Δ %	mila €	Δ %	mila €	Δ %	mila €	Δ %
Pertsonal gastuak	20.596	2,9	69.254	2,4	268.937	4,4	342.167	1,3	535.876	2,0
Gast. Ondasun arrunt eta zerb.	25.252	10,0	97.376	2,7	304.511	9,0	343.272	3,8	568.179	10,7
Funtzionamendu-gastuak	45.848	6,7	166.630	2,5	573.448	6,8	685.439	2,5	1.104.055	6,3
Inbertsio errealak	26.600	14,7	46.960	4,3	92.617	4,2	70.972	-9,7	188.557	15,1
Kapital transferentziak	407	-47,4	626	-4,9	3.391	12,7	4.627	-8,2	10.143	-10,1
Inbertsio-gastuak	27.007	12,7	47.587	4,2	96.008	4,4	75.599	-9,6	198.700	13,5
Transferentzia arruntak	7.180	1,5	29.407	-0,2	81.720	-1,4	63.032	-13,6	130.735	2,0
Finantza aktiboak	156	-3,2	543	38,3	544	-66,2	432	4,7	2.790	1661,8
Bestelako gastuak	7.335	1,4	29.950	0,3	82.264	-2,6	63.463	-13,5	133.525	4,1
FIN. KARGARIK GABEKO GAST.	80.190	8,1	244.166	2,6	751.721	5,4	824.502	-0,1	1.436.280	7,0
Finantza gastuak	105	58,3	550	15,7	1.302	28,3	975	17,6	3.194	25,2
Finantza pasiboak	1.637	1,7	7.152	22,1	18.244	7,9	28.230	96,1	51.292	65,3
Finantza-karga	1.742	4,0	7.702	21,6	19.546	9,1	29.205	91,8	54.486	62,2
GASTUAK, GUZTIRA	81.932	8,0	251.868	3,1	771.267	5,5	853.707	1,5	1.490.765	8,4

Populazio-mailaren araberako biztanleko gastuei dagokienez, honako hau ikus daiteke:

- Diru-sarreretan bezala, 4. populazio-mailak biztanleko zenbateko txikiena du (1.337 €/bizt.), hiriburuetakoa (1.935 €/bizt.) eta udalerrri txikienetako (1.870 €/bizt.) batez besteko balioen oso azpitik.
- Gastuen multzo nagusiari dagokionez, hau da, funtzionamendu-gastuak, 2. populazio-mailak zenbateko txikienak ditu, eta hiriburuak, berriz, handienak.
- Hiriburuak dagozkien zenbatekoak honako hauek izan dira:
 - Vitoria-Gasteiz: 1.760 €/bizt.
 - Bilbo: 1.821 €/bizt.
 - Donostia: 2.388€/bizt.

Biztanle bakoitzeko gastuek gora egin dute hiru hiriburuetan: 121 euro Gasteizen, 176 Bilbon eta 159 Donostian. Horrela, Gipuzkoako hiriburuak oraindik hiru hirien artean ratio altuena du.

3.4 Grafikoa: Gastuak biztanleko (€)



4. ZORPETZEA

Zorpetze-indizea, finantza-karga ordaintzeko erabiltzen den diru-sarrera arrunten ehunekoaz azaltzen duena, hazi egin da 2021ean eta % 3,6 izan da, 2020an baino 0,9 puntu gehiago. Indizeak gora egin du hiru lurralde historikoetan, Bizkaian eta Araban antzerako hazkundera izan du (1,2 eta 1,1 puntu hurrenez hurren), Gipuzkoan berriz 0,3 puntu hazi da. Bizkaiko indizea, % 2,1, beste lurraldeetako baino txikiagoa da.

4.1 Koadroa: Zorpetze-indizea orokorra eta lurralde historikoaren arabera (mila €)

	INTERESAK 3. KAP. GASTUAK	AMORTIZAZIOA 9. KAP. GASTUAK	FINANTZA- KARGA (1)	DIRU- SARRERA ARRUNTAK (2)	ZORPETZE- INDIZEA (1)/(2)
Araba	1.433	17.740	19.173	536.692	3,6%
Bizkaia	1.700	35.485	37.184	1.796.792	2,1%
Gipuzkoa	11.976	63.242	75.219	1.330.692	5,7%
Guztira	15.109	116.468	131.577	3.664.176	3,6%

Diru-sarrera arruntak igotzearen ondorioz, zorpetze-indizeak behera egin du lehen populazio-mailan. Aitzitik, beste populazio-mailetan finantza-kargaren gorakada sarrera arruntena baino erlatiboki handiagoa da, eta, beraz, zorpetze-indizeak gora egiten du.

4.2 Koadroa: Zorpetze-indizea populazio-mailaka (mila €)

	INTERESAK 3. KAP. GASTUAK	AMORTIZAZIOA 9. KAP. GASTUAK	FINANTZA- KARGA (1)	DIRU-SARRERA ARRUNTAK (2)	ZORPETZE- INDIZEA (1)/(2)
1.Pop.-maila	105	1.637	1.742	71.154	2,4%
2.Pop.-maila	550	7.152	7.702	251.939	3,1%
3.Pop.-maila	1.302	18.244	19.546	780.390	2,5%
4.Pop.-maila	975	28.230	29.205	859.889	3,4%
5.Pop.-maila	3.194	51.292	54.486	1.372.255	4,0%
Guztira	6.126	106.556	112.681	3.335.628	3,4%

Guztizko zor biziari dagokionez (400 M€), 2020ko datuarekin alderatuta, % 12,4 jaitsi da. Gipuzkoak guztizkoaren % 55,9 biltzen du, Arabak % 28,5 eta Bizkaiak gainerako % 15,6a. Zorra, BPGd-aren ehunekoan, Bizkaian

mantendu da eta beste lurraldeetan jaitzi. Ratorik txikiena Bizkaiari dagokio (% 0,2), Arabaren eta Gipuzkoaren azpitik, azken bi hauek % 0,9koa dute.

Zor biziaren 400 milioi horietatik, 34,2 milioi (% 8,5) udalez gairdiko entitateei dagozkie eta, horietatik, 33,7 milioi Gipuzkoakoak dira.

4.3 Koadroa: Zor bizi formalizatua orokorra eta lurralde historikoaren arabera.

	2021 Mila euro	Lurralde- banaketa %	BPGd-aren gaineko %	Δ % 2021/2020	Biztanleko zor bizia €
Araba	114.150	28,5%	0,9%	-0,9%	345
Bizkaia	62.233	15,6%	0,2%	-17,9%	55
Gipuzkoa	223.692	55,9%	0,9%	-15,8%	312
Guztira	400.074	100,0%	0,5%	-12,4%	183

Biztanle bakoitzeko zorraren zenbatekoa murriztu egin da 2020. urtearekin alderatuta, maila guztietan, lehen populazio mailan izan ezik. Hiriburuek dute biztanleko zor handiena (275 €/bizt.). Gipuzkoak ditu balorerik altuenak maila guztietan, eta bereziki Donostia nabarmentzen da, 569 €/biztanleko zorrarekin. Bilbok, berriz, zor bizirik gabe jarraitzen du.

4.4 Koadroa: Biztanleko zor bizi formalizatua, lurralde historikoaren arabera eta populazio-mailaka (€)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
1. Populazio-maila	99	69	139	98
2. Populazio-maila	64	95	132	99
3. Populazio-maila	56	86	182	133
4. Populazio-maila		70	141	91
5. Populazio-maila	438	0	569	275
Guztira	345	54	265	167

5. EKONOMIA ETA FINANTZA EGOERA

5.1 ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKAKOA

EAEko tokiko-sektore publikoaren ekonomia eta finantza egoerari dagokionez, honako hau adierazi behar da:

- Finantzaketa-gaitasun globalak 163,7 milioi euroko hazkundera izan du 2020. urtearekin alderatuta, aurrezki gordinaren % 28,5aren gorakadaren eta kapital eraketa % 17,3 jaistearen ondorioz. Termino erlatiboetan, finantzatzeko gaitasuna BPGd-ren % 0,30 da.
- 2021ean, hiru lurraldeek dute finantzaketa-gaitasun positiboa. Hiru lurraldeek urteko zorpetze garbi negatiboa dute, amortizazioek zorpetzearen ondoriozko diru-sarrerak gainditu dituzte.
- Hiru lurraldeek aurrekontu superabita dute.

5.1 Koadroa: Ekonomia eta finantza egoera lurralde historikoaren arabera (mila €)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
Diru-sarrera arruntak	536.692	1.796.792	1.330.692	3.664.176
Gastu arruntak	471.605	1.593.303	1.106.894	3.171.802
Aurrezki gordina	65.087	203.489	223.798	492.374
Kapital diru-sarrerak	60.028	74.231	89.335	223.594
Kapital gastuak	89.843	203.991	189.888	483.722
Kapital eraketa	29.815	129.760	100.553	260.128
Finantza Beharra (-) / Gaitasuna(+)	35.272	73.728	123.245	232.246
8. Kapituluak. Diru-sarrerak	1.867	5.726	2.024	9.617
8. Kapituluak. Gastuak	3.102	21.198	498	24.799
Zorpetze garbia. Beharra (-) / Gaitasuna (+)	34.038	58.256	124.771	217.065
9. Kapituluak. Diru-sarrerak	16.374	35.035	17.061	68.471
9. Kapituluak-gastuak	17.740	35.485	63.242	116.468
Urteko zorpetze garbia	-1.366	-450	-46.181	-47.997
Aurrekontuko Defizita (-) / Superabita (+)	32.671	57.806	78.590	169.067

5.2 POPULAZIO-MAILAKA

- Populazio-maila guztiek finantzaketa-gaitasuna dute.
- Mailegu berriek egindako amortizazioen zenbatekoak gainditu dituzte populazio-maila guztietan, 4. eta 2. populazio mailan izan ezik.
- 2021ean, populazio maila guztiek dute aurrekontu superabita.

5.2 Koadroa: Ekonomia eta finantza egoera populazio-mailaka (mila €)

	POPULAZIO-MAILAK					GUZTIRA
	1.	2.	3.	4.	5.	
Diru-sarrera arruntak	71.154	251.939	780.390	859.889	1.372.255	3.335.628
Gastu arruntak	53.133	196.586	656.470	749.445	1.237.984	2.893.618
Aurrezki gordina	18.021	55.353	123.920	110.444	134.272	442.010
Kapital diru-sarrerak	15.140	20.293	41.577	37.993	103.623	218.625
Kapital gastuak	27.007	47.587	96.008	75.599	198.700	444.901
Kapital eraketa	11.867	27.294	54.432	37.606	95.077	226.276
Finantza Beharra (-) / Gaitasuna (+)	6.154	28.059	69.488	72.838	39.195	215.734
8. Kapitulua. Diru-sarrerak	20	461	328	518	4.288	5.616
8. Kapitulua. Gastuak	156	543	544	432	2.790	4.464
Zorpetze garbia. Beharra (-)/Gaitasuna (+)	6.018	27.978	69.272	72.924	40.693	216.885
9. Kapitulua. Diru-sarrerak	2.350	3.875	19.340	21.705	20.126	67.396
9. Kapitulua-gastuak	1.637	7.152	18.244	28.230	2.790	58.053
Urteko zorpetze garbia	713	-3.277	1.096	-6.525	17.336	9.343
Aurrekontuko Defizita (-)/Superabita (+)	6.731	24.700	70.367	66.399	58.030	226.228

6. ZERGA ITUNDUETAN TOKI ERAKUNDEEN PARTE-HARTZEA

Aipatu den bezala, tokiko-sektore publikoaren diru-sarrerren iturri nagusia foru-aldundiek egindako transferentzia arruntak dira: hain zuzen ere, 2021. urtean toki entitateen diru-sarrera guztien % 47 izan dira, eta udalez gaindiko erakundeak sartzen badira, % 43.

Transferentzia horietatik, % 97 Ekonomia Itunaren kudeaketatik EAerako bideratzen diren zerga orokorren (PFEZ, sozietateen gaineko zerga, BEZ...) etekinetako partaidetzari dagokio. Batzar Nagusiek onetsitako toki erakundeen finantzaketari buruzko foru-arauek arautzen dituzte bai partaidetza hori, bai toki-entitateen artean banatzeko irizpideak, lurralde historiko bakoitzean.

Arau horien arabera, ekitaldi bakoitzeko behin-behineko partaidetza diru-sarrerren aurrekontu-aurreikuspenak oinarri hartuta kalkulatzen da, eta ekitaldia itxi eta benetako bilketaren datuak jakin ondoren kitatzen da.

Horrela, 2021. ekitaldiko toki erakundeen partaidetza zerga itunduetan, foru aldundien aurrekontu eta likidazioen arabera, honako hau izan da:

6.1 Koadroa: Zerga itunduetan toki erakundeen parte-hartzea

	Behin-behinekoa Mila €	Likidazioa Mila €	Likidazioa biztanleko €/bizt.
ARABA	235.717	272.442	824
BIZKAIA	829.260	905.725	795
GIPUZKOA	497.938	582.048	812
GUZTIRA	1.562.915	1.760.215	805

2021ean, toki erakundeek zerga itunduetan duten partaidetzaren likidazioa hiru lurraldeetan aurreikusitakoa baino handiago izan da.

Baliabideen Banaketarako Metodologiaren martxoaren 23ko 2/2007 Legea indarrean egon den urteetan, toki-erakundeek itundutako zergetan izan duten behin betiko partaidetza honako koadroan ikus daiteke.

6.2 Koadroa: Zerga itunduetan toki erakundeen parte-hartzearen bilakaera (mila €)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
2007	206.239	830.078	424.057	1.460.375
2008	219.394	750.376	404.433	1.374.202
2009	171.938	672.382	342.982	1.187.302
2010	200.822	750.865	392.492	1.344.179
2011	176.509	733.169	355.576	1.265.254
2012	234.309	759.403	385.314	1.379.026
2013	169.655	733.188	387.879	1.290.723
2014	185.581	752.643	418.901	1.357.125
2015	211.446	736.348	437.002	1.384.795
2016	204.704	762.250	449.336	1.416.290
2017	222.967	807.248	468.313	1.498.528
2018	243.333	869.493	514.574	1.627.400
2019	242.861	895.123	529.508	1.667.492
2020	217.824	766.414	482.049	1.466.286
2021	271.982	903.526	582.048	1.757.556

Bilakaera hori EAeko diru-bilketak garai honetan zehar izandakoarekin bat dator, eta krisi ekonomikoaren lehen etaparekin bat etorritik, 2009. eta 2011. ekitaldiek izan zuten portaera okerreana. Bestalde, aipatu beharra dago 2012. ekitaldiko emaitza ezohikoa izan zela, sarreretan estatu-laguntzak berreskuratu zirelako.

Populazio-mailaka sailkatuta, foru-aldundiek baldintzarik gabeko udal-finantzaketaren likidazioari buruz emandako informaziotik, honako datu hauek ondorioztatu dira:

6.3 Koadroa: Zerga itunduetako partaidetza biztanleko eta populazio-mailaka (€)

	ARABA*	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
1. <=1000	562	1.047	975	888
2. 1.001-5.000	608	746	784	728
3. 5.001-20.000	701	692	778	736
4. >20.000 (Hiriburuak izan ezik)		680	799	716
5. Hiriburuak	811	1012	871	914
GUZTIRA	768	794	811	795

*Udal eta kontzejuak bakarrik

Populazio-mailaren arabera aurkeztu diren datuak toki-erakundeek 2021ean jasotako zenbatekoak dira. Araban, batezbestekoa 768 €/bizt. izan da, baina kontuan hartu behar da honakoak ez direla taulan sartu:

- Obra eta Zerbitzuen Foru Plana (OZFP) (11,4 M€).
- Kuadrillen partaidetza (4,0 M€).
- Auzo Harremanak Sustatzeko Ekimenetarako eta Arabako Toki Erakundeetan Obra Txikiak Gauzatzeko laguntza programak (3,0 M€).

Kontzeptu horiek guztiak kontuan hartuta, Arabako biztanleko partaidetza 822 eurokoa izango litzateke.

Bizkaian (1.047 €/bizt.) eta Gipuzkoan (975 €/bizt.), 1. populazio-mailaren finantzaketa handiagoa da: alde batetik, Bizkaian, udalerriek finantzaketan zenbateko finkoa dute eta ondorioz, udalerrri txikiak abantaila lortzen dute eta, beste aldetik, Gipuzkoan, Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren % 1,2 gordetzen da 1.100 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietarako, eta ehuneko hori udalerrriaren populazio-tartearen arabera banatzen da zenbateko finkoetan. Zenbateko hori Bizkaian 81.137 € da, eta Gipuzkoan 84.142 € (200 biztanle baino txikiagoak diren udalerrietarako) eta 36.061 € (601 eta 1.000 biztanleen arteko udalerrietarako) artean dago.

Arabian, udal bakoitzerako esleipen finkoa 21.035 € da eta, gainera, biztanle gehien dituzten udalerriek partaidetza osagarriaren banaketan onura lortzen dute, partaidetza horren hainbat ehuneko gordetzen baitira 1.000, 5.000, 15.000 edo 50.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrri guztientzat.

Udalerrri txikiak eta hiriburua alde batera utzita, Gipuzkoako biztanleko finantzaketa antzekoa da populazio-maila guztietan. Erdiko 3 populazio-mailen artean ia ez dago alderik. 1. populazio-mailaren finantzazioa apur bat altuagoa da eta hiriburuaren prima dela-eta (Foru Funtsaren % 2,15), Donostiako finantzazioa hainbat altuagoa da

